

2006-07-04-ko OHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta sei urteko uztailearen lauan, arratsaldeko 20:00etan, udaletxeko Udalbatza-aretoan, ohizko batzarra egin du Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Agustin Zubeldia Iraola, M^a Jesús Otaño Zumeta, eta Jose Luis Olano Zubeldia zinegotziak izan dira bileran.

Aitor Lasa Olalde, Eugenio Loidi Garmendia eta Gregorio Lasa Etxezarreta zinegotziak ez dira bertaratu eta ez etortzeagatik desenkusatu dira.

Ez dira bertaratu eta ez etortzeagatik desenkusatu dira: inor ez.

Idazkari-lanak Miguel Antonio Arrizabalaga Brusinek egin ditu.

Alkateak bilkura publikoa ireki du; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

1. PUNTUA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (2006-06-06).

2006ko ekainaren 6ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hau onartzea.

2. PUNTUA

ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA. Honako dekretuen berri eman dute:

-2006-06-01-eko 73/06 Dekretua: Jesus de Plablosi 2.500 €-ko fidantza itzultzea.

-2006-06-02-ko 74/06 Dekretua: 27.574,24 €-ko apirileko fakturak onartzea.

-2006-06-13-ko 75/06 Dekretua: Laskibar Bailarako 17-4 okindegiko jarduera arauen barnean jartzeko eskaera.

-2006-06-13ko 77/06 Dekretua: Ikasi enpresari esleitzea bulego orokorrentzako altzarien horniketa 5.730,90€tan

-2006-06-16ko 78/06 Dekretua: Zorrobiaga Etxea eraikinaren jabeari kontserbazio neurriak hartu ditzala.

-2006-06-16ko 79/06 Dekretua: 343,09€ko indemnizazioa haintzat hartzea.

-2006-06-23ko 80/06 Dekretua: gizarte larrialdiko laguntzak: 2.993,2 €:

1.680 € uztailetik abendura bitarteko etxeko alokairua ordaintzeko.

1.313,2 € uztailetik abendura bitarteko mailegua ordaintzeko.

-2006-06-22ko 81/06 Dekretua: baso-pisten eta udal-bideen erabilera arautuko duez udal-ordenantza behin betirako onartzea.

-2006-06-23ko 82/06 Dekretua: herria mantentzeko peoiaren lan-kontraturako prozeduran parte hartzeari uko egitea.

-2006-06-23ko 83/06 Dekretua: LHOU OUAHZIZI, herria mantentzeko peoi kontratatzeke baimena ematea.

-2006-06-23ko 84/06 Dekretua: “Goiza-Pasa 2006” udaleko irekietarako begiraleak kontratazea.

-2006-06-27ko 85/06 Dekretua: Jule Martinez Arnaiz gizarte-dinamizatzaile lanetarako kontratatzea.

-2006-06-27ko 86/06 Dekretua: Jakinaraztea ondoren zerrendatutako erakundeei (ordezkaritza handiena dutenei) udalak borondatea daukala langile funtzionarioen eta lan-kontratadunen lan baldintzei buruzko akordio berria negoziatzeko:-ELA.-LAB.-UGT.-CCOO

-2006-06-28ko 87/06 Dekretua: Josu Alonso Oyarbidek 1681/06 zenbakidun administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

-2006-06-28ko 88/06 Dekretua: Irurako Parrokiko Eliza eraberritzeko udal baimena..

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

3. PUNTUA

HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO. IRURAKO UDAL HIRIGINTZA PLANEAMENDUAREN ARAU SUBSIDIARIOEN BERRAZTERTZEARI.

Udalak hasi ditu Irurako udal hirigintza planeamenduaren arau subsidiarioen berraztertzeko tramiteak, udalak formulatu dituenak eta Iñaki Etxeberria Izagirre arkitektoak idatzi dituenak.

Honela, Udalbatzak 2006ko urtarrilaren 24an egindako batzarrean hartu zuen erabakiaren arabera, aurrerakina onartu egin dute.

Era berean, lanek aurrera egin dute, dokumentazio osoa formulatu delarik, eta hasierako onarpena emateko moduan dago.

Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumeneko organoari eskatu zaio ingurumen-inpaktuaren aurre-txostena, baina ez dute erantzunik bidali.

Idazkari-kontuhartzailearen txostena ikusi dute, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege-dekretuaren 54. artikuluan ezarritakoaren arabera egina.

Ezar daitekeen legeria aztertu dute.

Korporazioak honakoa erabaki du aho batez, bere kiden gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 47.2.11) artikuluan ezarritakoaren arabera:

Lehena.- Irurako udal hirigintza planeamenduaren arau subsidiarioen berrikuste orokorrari hasierako onarpena ematea, udalak formulatuak eta Iñaki Etxeberria Izagirre arkitektoak idatziak.

Espediente hau osatu egingo da Ekolurrek idatzitako Ingurumen-inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren estudioarekin, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea bi hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere iragarkiak argitaratuko dira eta probintzian gehien saltzen den aldizkarietako batean gutxienea.

Epe horretan espedientea azter daiteke eta egoki ikusten diren alegazioak jarri.

Hirugarrena.- Lizentziak emateari uztea hainbat zonaldetan, zehaztapen berriek egungo hirigintza-erregimenean aldaketak eragin ditzakeen zonaldeetan. Eta hauek izango dira:

-7. Area (Antonenea).

-3. Area (Manufacturas Izaskun).

-1. Area (San Miguel plazako 11, 7 eta 7 bis eraikinak).

-16. Sektorea (Katategi)

-18-1 Area (Alonso-Garmendia).

Etenaldi honek 2 urte iraungo du gehienez jota eta, izatekotan, planeamendua behin betiko onartzearekin amaituko da.

Laugarrena.-Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurre-txostena eskatzea, ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arauemaileko 94. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauari buruzkoa.

Akordio hau izapide-egintza hutsa da. Hala ere, akordioaren hirugarren puntuarekin administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

4. PUNTUA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IRURAKO KONTSULTA-TEGIAREN OBRAK ESLEITZEA.

Udalak hasi du Irurako kontsultategi berriaren obra kontratatzeko prozedura. Udalbatzak Baldintza Pleguak onartu ditu 2006ko maiatzaren 9ko udalbatzarrean, prozedura irekian eta enkante bidez.

Beraz, eta indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, Udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

Lehena.- Irurako kontsultategi berria egiteko obrak Construcciones Ugarte S.L. enpresari esleitzea 136.130,70 €-rengatik.

Bigarrena.- Interesatuak, 15 laneguneko epean, akordio hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 5.445,23 €-ko bermea utzi beharko du udaletxeko kutxan, indarrean dagoen legediak ezartzen duen moduren batean.

Era berean, kontratua sinatzeko eguna adieraziko zaio.

Hirugarrena.- Marimi Ugalde Zabalari eskumena ematea kontratua sinatzeko udal honen izenean eta ordezkari gisa.

Laugarrena.-Iñaki Arregi Garitano proiektuaren egilea izendatzea obra zuzendari gisa.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke EAEko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzietako salan.

5. PUNTUA

ONARTZEA, BADAGOKIO, FRONTÓI INGURUA HIRIZTATZEKO AURREKONTUA.

Udal honek Mariezkurrena Eraikuntzak enpresarekin elkarlanean, akordio bat lortu zuen Irurako udal kirolgunea partzialki urbanizatzeko. Hiriztatze lan horien lehenengo fasea bukatze aldera, udal zerbitzu teknikoek aurrekontua idatzi dute 46.764,10€koa (BEZ barne) delarik.

Gainera, lan horiek egiteko aipatutako enpresa kontratatzea proposatzen da.

Hori dela eta, udalbatzak ondorengo erabaki du aho batez:

Lehena.- Onartzea, Irurako udal kirolgunea urbanizatzeko lehenengo fasearen aurrekontua, 46.734,10€koa (BEZ barne).

Bigarrena.- Lanak egiteko ardura Mariezkurrena Eraikuntzak enpresari esleitzea, 46.734,10€uroren truke egitekotan.

Hirugarrena.- Interesatuak ipini beharreko behin betiko bermea 1.869,36€urokoa da, lanen faktura deskontatu ondoren eta udal honen kutxan ipini beharko du.

Laugarrena.- Lanek urtebeteko bermea izango dute bukatutako egunetik.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke EAEko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzietako salan.

6. PUNTUA

IRURAKO PARROKIAREN ESKARIA, ERAIKUNTZEN ZERGAREN LIKIDAZIOAN HOBARIA APLIKATZEKO.-

Udal honek Irurako San Migel parrokiari aplikatu dionez, 9.006,36€uroko likidazioa, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergarena, eliza bere osotasunean birgaitzeko obrari ekiteagatik, parrokiak, likidazio horren ehuneko laurogieta hamabosteko hobaria eskatu du, arrazoituz obra horrek baduela Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 5eko 15/1989 Foru-Arauko 5.1 artikuluan erabakitakoa betetzeko adinako interes-historiko-artistiko nahikoa eta baita gizarte eta kultura arlokoa ere.

Horren aurrean eta obrak baldintza horiek betetzen dituen, udalbatzak erabaki du aho batez, eskatutako ehuneko laurogeita hamabosteko hobaria ematea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

7. PUNTUA

IRURAKO HILERRIKO ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA ONARTZEA, BADAGOKIO.

Aztertuta Landarri E.M. enpresak aurkeztutako proposamena Irurako hilerriko zerbitzak emateko, funtsean ehorzketak eta desehorzketak egitean oinarritzen diren zerbitzuak hain zuzen ere, udalbatzak ondorengo erabaki du aho batez:

Lehena.- Kontratu hori aipatutako enpresari bi urterako esleitzea.

Bigarrena.- Marimi Ugalde Zabala alkatea baimentzea udalaren izenean eta hau ordezkatzuz izenpetzeko kontratu hori.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

8. PUNTUA

NAFARROA-OINEZ-2006ren DIRULAGUNTZA ESKAERA.

Aztertuta Nafarroa Oinez 2006ren dirulaguntza eskaera, udalbatzak erabaki du aho batez, 167€uroko dirulaguntza ematea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

9. PUNTUA

ONARTZEA, BADAGOKIO, LOATZO UDALERRIEN MANKOMUNITATEAN ATXIKITZEA ETA BERTAKO ESTATUTUEI MEN EGITEA.

Udalerri honek Loatzo udalerrien mankomunitatean atxikitu nahi du, jakinik helburutzat musika irakasteko zerbitzua eskaintzea duela mankomunitate horrek. Gaur egun Ibarra, Anoeta, Altzo, Aduna, Villabona eta Zizurkileko udalek osatzen dute. Alegiako Udala ere atxikitze bidean da.

Aztertuta idazkari-kontu-hartzailearen txostena, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilean erabakitakoaren arabera igorritakoa.

Aztertuta mankomunitatearen estatutuak eta indarrean dagoen legeria.

Korporazioak honakoa erabaki du aho batez, bere kiden gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 47.2.1) artikuluan ezarritakoaren arabera:

Lehena.- Eskatzea Loatzo Udalen Mankomunitatean Irurako Udala atxikitzea.

Bigarrena.- Beronen estatutuak onartzea.

Hirugarrena.- Ondorengo batzarkideak izendatzea udal honen ordezkari:

-Marimi Ugalde Zabala.

- Aitor Lasa Olalde.

-Ordezkoa:Gregorio Lasa Etxezarreta.

Laugarrena.- Espedientea jendaurreko informaziorako gai ipintzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Iragarkia ipiniz.

Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundira dagokion txostena eskatzea.

Galdera eta eskaeran atalaren aurretik, presako egoera adierazi zutenez bertaratuek, ualbatzako kideen zilegizko kopuruaren gehiengo absolutoaren aldeko botoarekin, ondorengo gaia aztertu zuen udalbatzak:

10. PUNTUA

ONARTZEA, HERRI IRAKASKUNTZA MANKOMUNITATERA URTEKO EKARPENA EGITEA.

Herri Irakaskuntza Mankomunitateak igorri du Irurako Udalak mankomunitate horretara egin beharreko ekarpena. Beraz, udal hau mankomunitate hortako kide denez, 17.546€ ordaindu behar ditu.

Hori dela eta, udalbatzak erabaki du aipatutako urteko ekarpena onartzea eta ordaintzeko baimena ematea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

11. PUNTUA

IZAN FUNDAZIOAREN DIRULAGUNTZA ESKAERA.

Aztertuta Izan Fundazioak aurkeztutako dirulaguntza eskaera, udalbatzak erabaki du aho batez, 147€uroko dirulaguntza onartzea eta ordaintzeko baimena ematea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

12. PUNTUA

GALDERA ETA ESKARIAK.- Galdera eta eskarien atalean, batzarretora sartu dira Borbaberry etxeko bi bizilagun eta etxe horren inguruetako baldintzen inguruko hainbat arazoren berri eman dute (dantzalekua, aparkalekua, baratza, txabola-aurria.

Horren aurrean, alkate andreak mahaigaineratutako gai batzuri zuzenenan eman die erantzuna eta beste kasu batzuk udalak aztertuko dituela eta dagozkion espedienteak hasiko dituela adierazi die. Gainera eskatzaileak jakinaren gainean edukitzeko konpromisoa hartu du.

Aztertzeke beste gairik ezean batzarraldia bukatu da, hogeita bi orduetan. Guztiaren berri emanek akta hau egin eta idazkari naizenez ziurtatu dut.